

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO UDALA

#### Enplegu publikoaren eskaintza onestea

Bat etorri Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 24. artikuluan xedatutakoarekin, jakinarazten da alkatetzaren 2021eko azaroaren 22an dekretu bidez honako ebazpen hau eman dela:

Udalbatzak 2020ko azaroaren 19an onetsi zuen lanpostu zerrenda aldatu da. Lanpostu zerrenda hori 2021eko ekainaren 17ko osoko bilkuran berretsi zen (ALHAO, 2021eko uztailaren 9a, 76. zenbakia), eta, haren bidez, Administrazio Orokorreko teknikari lanpostu bat sortu zen, Idazkaritzako unitate organikoari atxikita. Lanpostu hori hutsik dago eta bete egin behar da.

Udalbatzaren 2021eko maiatzaren 20ko erabaki bidez, onetsi egin zen langile batek Aiarako Udaleko funtzionario izateari borondatez uko egitea, giza baliabideak arrazionalizatzeko planean xedatutakoaren esparruan. Hori dela eta, udal horretako administrari lanpostu bat hutsik dago eta bete egin behar da.

Euskal Autonomia Erkidegoko funtzionarioei buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen (EHAA, 144. zk.) 22., 23. eta 24. artikuluetan, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren 70.2 artikuluan eta Toki Administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarriko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dituen 896/1991 Errege Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoa kontuan hartu da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (BOE, 80 zk.) 21.1.g) artikuluan ezarritakoaren arabera, Alkatetza honi dagozkio enplegu publikoaren eskaintza onesteko eskumenak; horiek horrela, hau;

#### EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. Aiarako Udalaren enplegu publikoaren eskaintza onestea. Honako plaza hauek ditu:

- Administrazio Orokorreko teknikari bat: Taldea: A1. Hautaketa sistema: oposizio-lehiaketa.
- Administrari lanpostu bat: Taldea: C1. Hautaketa sistema: oposizio-lehiaketa.

BIGARRENA. Dagozkion iragarkiak ALHAOn argitaratzea, eta haien laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

HIRUGARRENA. Lanpostu hutsa bete arte egin beharreko izapideak bultzatzea.

LAUGARRENA. Dekretu hau udalbatzari jakinaraztea, egiten den lehenengo osoko bilkuran.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Arespalditza, 2021eko azaroaren 23a

*Alkatea*

*GENTZA ALAMILLO UDAETA*